

«Hizkuntza txikiek mundua handitzen dute»

Mokotxiki hipopotamoaren bizkarrean bizi zen.

Hain zen ttipia eta isila,
non hipopotamoari
ez zitzaion ardura
txori mokotxiki bat
eramatea bizkar gainean [...]

15,00
€



Gaiak: Animalia handia eta animalia txiki baten arteko harremanaz mintzo da. Sinbiosio harreman horretan eroso aurkitzen dira bata eta bestea. Lotura horretan gatazka bat azalduko da ordea. Txikiak handia bezalakoa izan nahi du, bere lengoia erabili nahi du. Ohartzen den arte, ahaztu egin dela bere barrura begiratzeaz. Bere mintzoa aurkitzeaz.

Gomendatutako adina: 4 urtetik aurrerakoentzat

Alderdi nabarmenak: Hizkuntza harrotasunaren gaia jorratzen da. Baita aske eta autonomo izatearen gaia. Norbera, norbera izan behar dela besteen konpainian.

Hau guztia, ilustrazio eder eta poetikoz jantzia dator. Irakurleak gaia erraz hautemateko moduan.

Moko txikidun txori txikia
hipopotamoaren bizkarrean bizi da...
Hortik aurrera, irakurleak berehala
identifikatuko du txikiaren eta handiaren
garapena, ilustrazioak ikusi hutsarekin.
Tamaina eta koloreen erabilera irizpide
zorrotzez erabiltzen du ilustratzaileak
marrazkiak irakurriaz bakarrik istorioa
ulertu aldera. Bestalde, narrazioa
bere laburrean esaldi poetiko eta
jostalariarekin ondu da.

Testua: Leire Bilbao
Irudiak: Maite Mutuberria

ISBN: 978-84-9172-013-3

Urtea: 2017 / 36 or.

24x24 cm barnea koloreetan,
azal gogorrean koadernatua



LEIRE BILBAO
(Ondarroa, 1978)

Haur literaturan ibilbidea oparoa izateaz gain, helduentzako bi poema liburu ditu: *Ezkatak* (Susa, 2006) eta *Scanner* (Susa, 2011). Poema horietako batzuk antologia ezberdinetan jaso eta hainbat hizkuntzataraz itzuliak izan dira. Kantu ere bihurtu dituzte zenbait musikaririk.

Hauek argitaratutako liburu batzuk:

Xomorropoemak eta beste piztia batzuk (Pamiela, 2016. **2017ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria**); *Piztipoemak eta beste xomorro batzuk* (Pamiela, 2016); *Pikondoaren balada* (Elkar, 2017. **Lizardi Saria 2016**); *Doministripu jauna* (Elkar, 2014); *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013. **Ettxepare Saria**); *Euli bat dut bihotzean* (Elkar, 2013) eta *Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska* (Erein, 2010).

**MAITE
MUTUBERRIA**
(Eltzaburu, 1985)

Publizitate, Hezkuntza eta Literatur lanak ilustratzen ditu.

Hauek argitaratutako liburu batzuk: *Maitte-maitte. Negar eta barre munduan urtebete* (Elkar, 2017); *Oihartzun isilak* (Erein, 2017); *Gixela nire laguna da* (Ibaizabal, 2017); *Pikondoaren balada* (Elkar, 2017); *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* (Pamiela, 2016. **2017ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria**); *Piztipoemak eta beste xomorro batzuk* (Pamiela, 2016); *Kixotenean* (Elkar, 2016. **Rikardo Arregi Sari Berezia**); *Kantuz 1965-2015* (Elkar, 2015); *Apaiz gerrillariaren ezkutalekua* (Elkar, 2015); *Zerua Berun* (Ibaizabal, 2014. **Peru Abarka Saria**); *Bizikleta lapurtu didate* (Ibaizabal, 2014); *El país donde habitan las cigüeñas* (**Lazarillo Saria**, 2014) eta *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013. **Ettxepare Saria**).

2. argitalpena

(abendua, 2019)